

Finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika sormen-sektoreetan 2020

Emaitzen laburpena

2022ko iraila



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Aurkibidea

1. Estatistikaren lehen edizioa	3
2. Gastu publikoa sormen-sektoreetan	5
3. Begirada sektoriala	6
4. Gastu bateratuaren azterketa ekonomikoa sektoreka	7
5. Enplegu publikoa sormen-sektoreetan	8

1. Estatistikaren lehen edizioa

Estatistika honen **helburua** da **sormen-sektoreetarako aurrekontu publikoei** buruz informazioa ematea, baita erakunde publikoek sektore horietan sortzen duten **enpleguari** buruz ere. EAEn horrelako azterketa bat egiten den lehen aldia da hau.

Eragiketaren izena

Finantza-eraketaren eta gastu publikoaren estatistika sormen-sektoreetan EAEn.

Aztertutako gaia

EAEko Administrazio Publikoko eta haren mendeko erakunde autonomoetako, sozietate publikoetako eta fundazioetako sormen-sektoreentzako aurrekontu publikoa.

Erreferentzia-urtea

2020

Informazioa noiz bildu den

2021eko iraila – 2022ko apirila

Informazioa biltzea


Informazioa zuzenean jaso da fitxa egituratuaren bidez (euskarri informatikoan eta paperean) hainbat erakundetan: Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, erakunde autonomoak eta sozietate publikoak. Aholkularitza eta laguntza espezifikoak ere eskaini dira, erakunde bakoitzeko informatzaileen ezaugarrietara eta beharretara egokitua, teknika sorta bat erabiliz.

Azterketaren unibertsoa



Errolda:

- Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udal guztiak (72 udal).
- Administrazio baten edo batzuen mende dauden edo % 100eko partaidetza duten erakunde autonomoak eta sozietate publikoak (7 erakunde).

Lagina 5.000 biztanletik beherako udalerrientzat (98 udal).




2. Gastu publikoa sormen-sektoreetan



2020an, **180.130.830 eurokoa** izan zen sormen-sektoreetara bideratutako EAEko administrazio publikoen **gastu likidatua**. Bikoiztutako partidak araztu ondoren, **136.525.122 eurokoa da gastu bateratua**.

% 1,86koa da sormen-sektoreetako gastu likidatuak EAEko administrazio publikoen **guztizko gastuarekiko duen pisu erlatiboa**. Udaletan, batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da pisu erlatibo hori: % 1,89. Eusko Jaurlaritzan aurrekontu osoaren % 0,55 da, eta foru-aldundietan, berriz, % 0,69.

3. Begirada sektoriala




Hizkuntzaren industriek gastu publikoaren erdia baino gehiago hartzen dute sormen-sektoreetan. Horren barruan, 69,5 milioi euro bideratzen dira hizkuntzak irakasteko.

Hurrengo bi sektoreak dira **Arkitektura** (30,5 milioi euro) eta **Publizitatea eta marketina** (25,2 milioi euro).

Zeharkako gastua antzekoa da sormen-sektoreen multzoan eta **diseinuan** (1,8 eta 1,7 milioi euro, hurrenez hurren).

Sormen-gastronomia, moda eta bideojokoak ez dira iristen gastu publikoaren milioi bat eurora.

4. Gastu bateratuaren azterketa ekonomikoa sektoreka



Kapital-gastuaren eta aktibo eta pasibo finantzarioen gastuaren **gainetik dago gastu arrunta.**


Transferentzia arruntak nabarmentzen dira hizkuntzaren industrietan, bideojokoetan, modan, sormen-gastronomian eta zeharkako sektorean.

Ondasunen eta zerbitzuen gastu arruntak gailentzen dira diseinuan eta publizitatean eta marketinean.


Arkitekturan, **I. kapituluak du pisu handiena, inbertsio errealean VI. kapituluaren ia pareko.**

Hizkuntzaren industrietan, azpisektoreen arabera aldatu egiten da egoera: hizkuntzen irakaskuntzan % 70ekoa da transferentzia arruntaren pisua; itzulpengintzan langileen gastua nabarmentzen da, gastuaren % 62 baita.

5. Enplegu publikoa sormen-sektoreetan



Sormen-sektoreek **501 lanpostu** sortzen dituzte EAEko administrazio publikoan. Lanpostu horien erdia baino **gehiago hizkuntzen industriaren sektorekoak dira**: 73 lanpostu itzulpengintzari lotutako jardueretan eta 191 lanpostu euskararen irakaskuntzari lotuak. **Arkitekturari atxikitako enplegu publikoa 232 lanpostukoa da.**



Emakumeek 10 enplegutik 6 baino gehiago betetzen dituzte (308 emakume).

Emakumeen proportzioa handixeagoa da **hizkuntzaren industrietan, 3 lanpostutik 2** betetzen baitituzte sektore horretako enplegu publikoan (264 lanpostutik 173).

Arkitekturan ere emakumeen proportzioa handiagoa da gizonena baino: **lanpostuen % 57 emakumeek betetzen dituzte** (232 lanpostutik 133).